

Artikulu honetan ideologien gailentzeak sortutako kontsensuak eta haien solidotzearen ondorioak aztertzen dira. Azken urteetako krisi ekonomikoak agerian utzi du gaur eguneko ekintza ekonomiko zein politikoak arautzen dituzten irizpide nagusiak neoliberalismoaren gidaritzapean daudela. Irizpide horien solidotzea dela eta, alternatiba egingarria oso zaila dirudi.

Giltza-Hitzak: Ideologiak. Kontsensua. Hegemonia. Krisi ekonomikoa. Irtenbideak.

En este artículo se analizan los consensos creados por la hegemonía de las ideologías y las consecuencias de su consolidación. La crisis económica de estos últimos años pone en evidencia que los principales criterios que rigen las actuales acciones económicas y políticas están guiados por el neoliberalismo, y la consolidación de dichos criterios hace que parezca muy difícil poder constituir una alternativa factible.

Palabras Clave: Ideologías. Consenso. Hegemonía. Crisis económica. Soluciones.

Cet article aborde les consensus créés par l'hégémonie des idéologies et les conséquences de leur consolidation. La crise économique de ces dernières années a mis à jour le fait que les principaux critères qui sous-tendent l'action économique et politique actuelle sont placés sous l'emprise du néolibéralisme. Étant donné la consolidation de tels critères, la construction d'alternatives réalisables semble hors de portée.

Mots-Clés : Idéologie. Consensus. Hégémonie. Crise économique. Solutions.

Hegemonia neoliberalala eta krisi ekonomikoa: askatu ezinezko korapiloa

(Neoliberal hegemony and
the economic crisis:
the unfastenable knot)

Inza Bartolomé, Amaia

UPV/EHU Euskal Herriko Unibertsitatea. Gizarte
Langintzako Unibertsitate Eskola. Apraiztarrak kalea, 2.
01006 Vitoria-Gasteiz
amaia.inza@ehu.es

Sarrera

Gizarteak ziklo ezberdinak igaro ditu aurrerabidea lortzeko etengabe saiatzen. Ekonomia eta politikaren arteko egokitasun jakin batek klase politikoan zein iritzi publikoan izaera anitzeko kontsensuak lortu ditu historian zehar. Hurbilen daukaguna ideia neoliberalak sortutako bateratasuna da, eta aurretik zegoen kontsensu sozialdemokrata atzean utzi dugu.

Hala ere, bateratasun horren izaera oso bestelakoa da batengan zein bestearengan. Kontsensu sozialdemokratak ekonomiaren gain zuen efektu orekatzaileak, hau da, ekonomiak sortu zitzakeen efektu negatiboen leuntze nahi horrek, ez zuen epe luzerako planteamenduen eztabaida politikoa alde batera utzi. Ideia neoliberalen ezaugarri behinena, aldiz, dakartzkien ideien ekidin- ezintasuna da, noizbait tradizio ideologiko zein aktore politikoek bere egindako ikuspuntu neoliberalak naturalizat hartzen da, zalantzarik gabe hartu beharreko bidea balitz bezala. Horregatik, alternatiba politiko bati uzten zaion lekua eskasa da. Aipaturiko bide horrek, ordea, logika sistemiko bat apurtzera eramanez gaitu, krisi ekonomikora, hegemoniko bihurtu diren ideiak konpondu ezin ditzaketenean krisi batera. Gainera, hegemoniak zekarren lokartze efektu horrek alternatiba gabe utzi gaitu, liberalismo gordina defenditzen ez duten ideologiek ezin dutelako ezer baliogarriarik eskaini.

Idatzi honetan, kontsensu sozialdemokratatik hegemonia liberalera bitarteko pausuak aztertuko dira eta kontsensu eta hegemonia kontzeptuek dakarten eraginak aztertuko ditugu. Hegemonia neoliberalak krisi ekonomikoa bilakaeran izan duen garrantzia agerian uztea izan du helburu.

1. Kotsensuaren izaera. Sozialdemokraziatik neoliberalismora

Kotsensua bi alderdi politikoen edo gehiagoren posizio ideologikoen superposizioa da, eta haien politiken helburuen bateratasunean islatzen da (Heywood, 1997: 10)¹. Kotsensu sozialdemokrata edo keynesiarraren solidotzea bigarren mundu gerrak ekarritako suntsiketaren ondoren Estatuak herrialdeen berregitean zuen rolaren inguruan gauzatu zen. Eraikuntzaren ardatzean ongizatearen ideia zegoen eta hori eraikitzen liberal, sozialdemokrata eta kontserbatzaileek egin zuten lan². Kotsensu horrek debate politiko eta intelektuala baldintzatu eta politika eta ekonomia-riaren rola definitu zituen. Merkatu ekonomia, pobrezia aurre egin eta ezberdintasun soziala murriztearen alde zegoen, hazkunde ekonomikoa eta justizia soziala uztartzeko. Orokorrean, XX. mendeko historia europarra, esparru ekonomiko, soziala eta instituzionalean liberalismo eta printzipio demokratikoaren arteko tentsioaren ondorio bada ere, neutralizatzeko, tregua bat paktatu zen bigarren mundu gerraren bukaeratik hirurogei eta hamarreko hamarkada arte (Vallés, 2010).

Proiektu horren helburu nagusia zuzenago eta efizienteagoa zen ordena sozio-ekonomiko berria lortzea zen, kotsensu demokratikoa oinarritzat hartuta, ezberdintasun sozialen arteko diferentzia txikitzeko asmoz, eta hezkuntza-zabalkundea berdintasunaren oinarri gisa erabiliz (Sotelo, 2010: 284). Horri politika keynesiarraren aplikazioa, gizartean geroz eta partehartze publiko handiagoa, zenbait zerbitzu zuzenean kudeatzeko eta gizarte garatu bateko ongizate orokorarentzako prestazio beharrezkoak, eta zerga progresibo sistema baten bitartez errekurtsio ekonomikoa ekarriko lituzkeen sarearen sormena gaineratu behar zaizkio. Sektore sozial eta aktore politikoen artean oinarritzko kotsensu bat eman zen solidaritate instituzionaleko egitura hori mantentzeko behararen inguruan, hots, kotsensu sozial-demokrata (Vallespín, 2003: 405).

Kotsensu horren sostengu nagusia gizarte politikak sortzen zuten klaseen arteko adostasuna izan zen, eta horiek lortzeko bide bakarra estatuko ekintza politikoak zirela uste zen. Keynesen teoria ekonomikari esker, politika soziala ez zen sistema ekonomikari inposatzen zitzaion karga, barne orekatzailea baizik. Mekanismo horrek eskaria bultzatuz ekoizpena aktibatzeaz gain kontsumoa handitzen zuen eta ondorioz, ongizatea (Gallego, 2000: 115). Bitartean, ongizate Estatuak gatazka sozialak eta borroka ideologikoak baretu zituen, arazo ekonomiko eta sozialak konponbide teknikoekin zuzentzea nahiago izaten zuelako.

Aipatutakoak tradizio sozialdemokratarentzat koiuntura egokia sortu zuen, baina guda osteko kontserbadoreei arazoak sortu zizkien. Modernitate eta liberalismoaren elementu printzipalak bereganatu zituzten, ondorioz ia ezin ziren liberalengandik ezberdindu; sozialdemokraten hazkunde interbentzionista eta ongizate

1. Egoera larrietan, adibidez, iritzi publikoak ez du ulertzen alderdi politikoak interes publikoaren onurarako egokiak diren politikei dagokien kotsensuak bilatzen ez saiatzea (Tezanos, 2010).

2. Bigarren mundu gerraren ondoren, etengabeko hazkunde ekonomikoa eta enplegu osoak, soldata erreala handitu eta populazioaren sektore zabaletan ongizatearen oinarri bihurtu ziren osasun, hezkuntza eta pentsio politikak sortu zituzten (Sotelo, 2010: 329).

Estatua onartu zuten; beraz kontserbadoreak ezin ziren esparru horretan ere sozial-demokratengandik ezberdindu. Esanak esan, hirurogeiko hamarkadaren bukaeran kontserbatzaileek zuten arazorik nagusia, lehia politikoak ezkererantz mugiarazten zirela eta haien nukleoa hustu egiten zuela zen (Girvin, 1994: 196). Hori zela eta, kontserbatzaileek ere, 'kontserbadurismo teknokratikoa' zeritzon estrategia jarraitu zuten eta kontsensu sozialdemokratako irizpideak era pasiboan jarraitu behar izan zituzten.

1.1. Sozialdemokraziaren urrezko garaia

XX. mendeko laurogeiko hamarkadan, ekonomilari eta politikariek gero eta oztopo gehiago jartzen zizkieten Estatuaren ahalmenaren bidez merkatuaren 'ustezko efizientzia ezak' (Merkel, 1995: 29) konpondu nahi zituzten ideiei. Horrekin batera pixkanaka teoriko monetaristen ideiak indarra hartu zuten. Haien helburua aktibitatearen gorabehera ziklikoak moderatu ahal izateko eta, batez ere, tendentzia inflazionista ekiditeko eskaintza monetarioak erregularizatzea zen. Neurri monetaristak politika sozial berdintzaileen aurka zihoazen, monetaristentzat gastu publikoa zailtasun ekonomikoen errudun nagusia zelako. Aipaturiko ideia horiek Estatuak ekonomian zuen garrantzia bigarren maila batean jarri zuten. Estatuaren funtzioen berregituraketa bilatzen zuen azken finean, bai helburuetan baita esparruen lehen-tasunen berrantolaketa ere. Esan bezala, kritikaren munean, Estatuak hazkunde ekonomikoa ongizate programa zabalekin uztartzeko zituen arazoak ziren, eta horri helduta monetarismoaren defendatzaileek inflazioaren kontrola helburu printzipala izatea lortu zuten.

Orokorrean, lehen eta orain, eskuinaren helburu nagusia Estatuaren eremua gutxitzea da, desarautzearen bitartez, duen gainkargaz askatzeko eta Estatuaren interbentzioaren aurkako argudiorik garrantzitsuenetarikoa 'gobernatzeko ezintasunaren' arazoa izan da (Held, 1989). Horren arabera, Estatuak ez da gai gizarte industrial aurreratuaren herritarrek metatuz joan diren ongizate eskakizunak asetzeko. Ondorioz, gizartearen eskariaren asetze gabezia horrengatik, Estatu autoritatearen krisia dator eta berau ordenu politikora kutsatzen da. Ordena sozial mugaezin horren pisuaren ondorioz, Estatuaren instituzioek zuzentzeko ahalmena galtzen dute.

Aurreko epeko kontsensu garaian eraikitako ongizate ereduak alde batera utzi eta ideia liberalak direla medio berregituraturiko ereduak eraiki zen. Horrekin, Estatuaren funtzioen errebisioa jarri zen martxan, eta esan bezala, Estatuak eskari sozialak asetzeko tresna nagusia izatea kritikatzeko zuten batez ere. Gainera, ongizate Estatuarekiko konpromisoa sustraitzen zuen klase kontsensua desagertu egin zen. Gizartearen funtzionamendu eta kudeaketa on bat lortzeko, hau da, egitura hori mantentzeko, klase guztiek zuten interesa ez zuen adostasuna mantendu. Goi mailako klaseek ez zuten onura nahikorik jasotzen partehartze ekonomiko altua eduki arren, eta horrengatik hezkuntza, osasuna eta segurtasuna lortzeko, sektore pribatua jotzen zuten. Hala eta guztiz ere, gehiengoaren bizi-maila egonkortu egin zen eta klase sozialen arteko tentsioak baretu egin ziren beste askok segurtasun ekonomiko maila duina lortu zutenean (Inglehart, 1998: 317).

Baina kontsensu keynesiarrari kolpe erabakigarria hirurogei eta hamarreko eta laurogei hamarkadetako atzeratze ekonomikoak eman zion, ongizate estatua- rekin identifikatzen ziren neurri askoren legimititatea mindu zuelako. Horri gehitu behar diogu nazioarteko lehiakortasunak ongizate Estatuaren iraupena zaildu eta ekonomia irekitzeak kudeaketa keynesiarra ia ezinezkoa egin duela.

1.2. Globalizazioaren efektuak eta sortutako kezak

Globalizazioa prozesu zaharra bada ere, bigarren mundu gerraren ostean, GATT negoziazioek bultzada erabakigarria eman zioten. Horretan merkatuen irekiera eta komertzioari mugak ezabatzeko neurriak hartu zituzten eta botere ekonomikoa zuten herrialde eta organismoek kontsensuan oinarrituriko estrategia jarri zuten martxan, demokrazia liberal eta kapitalaren mugimendu askeari laguntzen zieten politika makroekonomikoen bitartez (Held, 2000b: 98)³.

Proiektu globalizatzaileak paradigma ekonomiko keynesiarraren errebisio neoliberala egin zuen arlo ekonomiko, politiko eta moralean. Merkatu librearen funtzio minimodun Estatuak eskatzen zuen eta helburu sozial kolektiboak arbuizatzeko zituen. Are gehiago, Estatuaren boterea txikitzearen ondorioz, politika mikroekonomikoa praktikan jarri eta diseinatzea besterik ezin zuten egin eta jarrera hori kontsensu ekonomikoa sortzearen erruz sakondu da (Gray, 2000: 95).

Horren efektuak edonon suma daitezke, bere kapital eta dominazio ekonomikoaren proiektuaren onuradun diren eremuak hobetsi eta bultzatzeko gai izan delako ia mundu osoan (Jessop, 2002). Gaur egun merkatu globalizatuetan, produktuak lurralde zabaletan salerosi daitezke, kontsumo ereduak herrialde guztietan antzekoak direlako. Kapitala mugikorra da eta onura seguruak lortu ditzakeen lekuetara doa. Merkatu zabal horretan funtzionatzeko teknika post-fordistak aplikatzen dituzte eta gainera informazio eta komunikazio teknologia berrien garapenarekin sektore industrialak barrutik aldatu dituzte (Cerny, 1999: 10-11).

Kontsensu sozialdemokratik aldentze bidean, alderdi kristau-demokrata eta kontserbatzaileek ideia ekonomiko neoliberalak berraurkitu zituzten. Horiek pribatizatzeko, zerga sistemaren erreforma, desarmatzea eta merkaturatzea zekarten politika sorta defendatu eta sektore pribatuaren aldeko apustua egin zuten (Müller, 1994: 34-36). Estatuan gertaturiko aldaketak, ardatz ideologikoan eskuinean kokaturiko alderdien alde jokatzeko, Kitschelt-en (1994) esanetan, politika sozialdemokrata tradizionalak ezin direlako ezarri, kapitalismo aurreratuaren testuinguru sozioekonomiko eta kulturean ezin dira arrakastatsuak izan, eta gainera, alderdiak ezin diete hautesleei dimentsio banatzaileen alternatiba diferentziatuak eskaini. Hori guztiaren aurrean eta Bauman-ek (2009: 118) dioen bezala, agian Estatu sozialaren bukaera⁴

3. Helburu nagusiak inflazio baxua, aurrekontu orekatuak, muga komertzialak ezabatzea eta dibisen kontrola, kapitalaren askatasun osoa, lan merkatuen erregulazioa minimoa, pribatizazioa eta ongizate Estatu dinamikoak izan ziren (Held, 2000b: 98).

4. Biztanleria Estatu sozialaren bitartez 'beldurraz libratzeko' saiakera hura, gizateriak inoiz egindako proiekturik gorenena izan dela gaineratzen du Baumanek (2009: 117).

izango da, baina trukean 'segurtasun Estatuaren' ideia indartzen ari da. Bide batez, aldaketa prozesu horren muinean 'segurtasun' hitzarekin adierazi nahi duguna da eta horrek etorkizuneko ezaugarriak baldintzatuko ditu.

Estatuaren funtzio babeslea baztertua eta ongizatearen sormenean zuen rola murriztea arriskuak berriz definitzea eta biderkatzea ekarri zuen, eskubideak lan merkatuaren baldintzen arabera direlako. Horren inguruan gogoratu behar gaude lan-banaketa, sistema produktibo kapitalistaren funtsa, ezberdintasun sozialak handitzen dituela etengabe (Sotelo, 2010). Diskurtso neoliberalak ongizatean egiten den gastua sistema ekonomikoaren orekatzailea bada justifikatzen du soilik, hazkundera bideraturiko merkatu aukerak handitzen duen tresna bada, alegia.

Hala ere, Estatuak ez ditu inoiz galduko bizitza, askatasuna eta jabetza sostengatzeko bermeak, hots, bere izaera liberal klasikoa. Baina zilegitasunari dago kiola, Estatuaren eginbeharrak diren zenbait zerbitzu merkatuaren esku uztea arriskutsua da, herritarrek zenbait eskubide ukaezin dituztela uste baitute. Hau da, Estatu interbentzionistadun kontsensu sozialdemokratatik, merkatu indarren onarpen neo-liberalera pasatzen gara, nahiz eta herritarrek oraindik gobernu oinarritzko zerbitzu batzuek arduratzea nahi izan. Estatuak duen eginkizun birbanatzailean sinesten ez dutenek ere, segurtasun soziala ematearen arduradun dela defendatuko lukete, esparru murriztagoan bada ere. Hori ere bazter utziko balute, Estatuak konponbiderik gabeko zilegitasun-krisian eroriko lirateke eta ezegonkortasun sozial maila izugarri igoko litzateke.

Globalizazioan eta sozialdemokraziaren arteko harremanari buruz, Friedman-ek (2000) dio mundua ezin dela globalizatu izan sozialdemokrata izan gabe. Zenbait muga mantentzen ez badira, ezin da irekierarako beharrezkoa den kontsensu politikoa mantendu. Era berean, ezin da sozialdemokrata izan globalizatzailea izan gabe, bestela ezingo litzateke bizi-maila igo edo pobreek arduratu adibidez. Hala ere, Estatuak ertzean dauden zerbitzu publiko banatzaileak uztearen alde dago, sektore pribatuarentzat errentagarriak ez direnak, hain zuzen ere.

Agerian da gizarte kapitalistan ongizate Estatuaren zabalkuntzaren aurkako muga ekonomiko eta politikoa ezarri direla, baina beste hiru muga garrantzitsu daude ongizate Estatuaren murrizketa baretzeko (Jessop, 2002). Alde batetik, pilaketa kapitalistarentzat ekonomiaz kanpoko lan indarraren erreproduktzio eraren bat funtsezkoa da. Nahiz eta merkatu, Estatu eta gizarte zibilaren mugak aldatu, Estatuak oraindik gida-rol garrantzitsua du.

Beste alde batetik, Estatuaren doiterako instituzio-muga garrantzitsuak daude, politiken oinardekotzak, programen inertzia eta Estatuaren arkitektura orokorrarengatik. Azkenik, ordezkartza politiketan, Estatu aparatuen barne eraketan eta interbentzio politiketan sustraituriko mugak daude. Hala ere, mundu politiko eta ekonomikoaren arteko apurketa (Vallespín, 2000: 144) baten aurrean gaude. Mundu ekonomikoak mundu politikoa hustu egiten du, lotura soziala zein kontratu sozialaren zimenduak eraikitzen dituzten erak mintzen dituztenak. Ikuspuntu hori dela medio, aurrerabidea neurtzeko irizpideak aldatu egiten dira. Hemendik aurrera ongizate Estatuaren baliabideen handitzea ez da positiboa izango eta Estatu era

paternalistaren ezaugarriak erasoak izango dira. Balore funtsezkoena askatasuna denez, hori izango da Estatuak babestu eta bermatu beharko duena. Optimismo antropologikoak hazkunde ekonomikoa, gelditu ezinezko aurrerabidea eta zorionaren ideologizazioa sortzen ditu, eta bere egiten ditu, lorpen sozialak izango balira.

Garrantzitsua da agertzen joan den eraikuntza berri hori, hots, Estatu eredu berria lehiakortasun ekonomikoan oinarrituriko kontsensu berri baten bultzatzaile eta emaitza dena, guda osteko adostasun keynesiarraren lekua hartu duena. Hori guztia tresna eta helburu sozialdemokratentzat galera izugarria dakar, Estatuari ez zaiolako ongizate probisioan buruzagitza edukitzen uzten. Horrela, sozialdemokratik galdu egiten dute bere aldagai definitzaileak lortzeko tresnarik nagusia.

Baina badaude egoera horri buelta eman nahi diotenak, teoriarik bada ere. David Held-entzat (2000a, 2005), globalizazioaren forma eta izaera, ikuspuntu hiperglobal batetik politikoki aldatu daiteke; globalizazioaren bultzatzaile aktiboak geldiarazteko bitarteko gutxi badaude ere, norabide politikokoan aldaketa funtsezkoa egitea litekeena da. 'Demokraziaren kontzeptu kosmopolitan' sustraitzen du autore horrek bere pentsamoldea. Herritarrek komunitate politiko ezberdinetan -lurraldekoak, Estatu-nazioa, sare globalak- parte hartzeko gaitasuna izan behar dute. Kontzeptu kosmopolita horrek mugak edo pausuak markatzen dituen oinarritzko baloreak ezartzen ditu eta inolako organismo global, Estatu erakunde edo asoziazio zibilik ezingo ditu horiek alde batera utzi. Gizabanakoak berdinak dira funtsean eta tratatu politiko berdintsua merezi dute, jaio edo hezi diren komunitatea edozein izanda ere. Kosmopolitismoaren bitartez sortzen diren arautze politiko eta lege elaborazioak Estatu nazioen eskarrietaz haratago doaz. Botere politikoaren muinean garrantzi sakona duten eskubide eta baldintza zehatzak sortzen dituzte.

Zehazki, Held-en proiektu kosmopolita horrek kontrol demokratikoari ihesi egiten dioten sare eta botere formei erantzukizuna eskatu ahal izateko neurri eta printzipio instituzionalak ezarri nahi ditu. Autore hori globalizazio eta integrazio sozialaren arteko erlazioan oinarritzen da sozialdemokrazia globaleko programa eratzeke, globalizazio prozesuak, integrazio sozialeko loturak eta solidaritate eta justizia lehentasunak elkarlotzeko. Hitzarmen global batek bakarrik lor dezake lotura horiek garatzea. Herritar kosmopolitak herritartasun anitzak ditu; ez dago komunitate konkretu bati lotuta soilik. Herritartasun kontzeptua bera, mundu ordenaren oinarri izan beharko du, zeinaren bitartez pertsonak eskubide eta eginbehar baliokideak dituzten haien behar eta bizi interesei eragiten dien eremu ezberdinen erabaki hartze prozesuetan. Politika gehiago eskatzean optimista da Held, alternatibak oraindik gure eskuetan daudela uste duelako.

Subjektu politikoari dagokiola, Held-ek horrelako programa bat martxan jartzeko eta ondasun publiko globalak eskaintzeko erarik onena zein den azaltzen digu. Talde politikoen koalizio bat garatu daiteke, non tradizio progresista eta sozialdemokrata indartsua duten herrialde europarrak egon daitezkeen. Sistema mundu ekonomikorako merkataritza-arau askeago eta zuzenagoak lortzeko borrokatzen duten garapen bidean dauden herrialdeak ere lekua edukiko lukete. Hemen ere gobernu kanpoko erakundeak, mugimendu sozial nazio artekoak eta ekonomia global orekatu eta antolatua bilatzen duten indar ekonomikoak sartzen dira. Hala ere,

Held-ek argi dauka eredu tradizional sozialdemokratak arazoak dituela, eskatzen dituen balioen norabidea eta horiek aurrera eramateko dituen politiken arteko doitzeko egokia ez dagoelako.

2. Berrantolaketa neoliberala

2.1. Ideologia neoliberalaren oinarriak

1947. urtean Friedrich von Hayek izeneko austriar filosofo politikoaren inguruan 'Mont Pelerin Society' eratu zen eta bertan Milton Friedman ekonomista edo Karl Popper filosofoa bildu ziren, besteak beste. Taldeko partaideak liberalak ziren eta haien zat askatasun indibidualaren idealak oinarritzkoak ziren. Ekonomia neoklasikoaren irizpideak jarraitzen zituzten, batez ere ekonomia askeari zegokionean eta Adam Smith-en esku ikusi ezinaren teoriar sinisten zuten. Estatuaren ekonomia planifikatuaren aurka zeuden; estatuaren erabakiak ezin ziren inoiz bete-betekoak izan tartean interes taldeak zeudelako. Gainera, merkaturako egokia zen informazioa ez zuen Estatuak jakiten. 'Mont Pelerin Society'-ren fundazioaren lehen paragrafoak oso adierazgarriak dira:

The central values of civilization are in danger. Over large stretches of the Earth's surface the essential conditions of human dignity and freedom have already disappeared. In others they are under constant menace from the development of current tendencies of policy. The position of the individual and the voluntary group are progressively undermined by extensions of arbitrary power. Even that most precious possession of Western Man, freedom of thought and expression, is threatened by the spread of creeds which, claiming the privilege of tolerance when in the position of a minority, seek only to establish a position of power in which they can suppress and obliterate all views but their own.

The group holds that these developments have been fostered by the growth of a view of history which denies all absolute moral standards and by the growth of theories which question the desirability of the rule of law. It holds further that they have been fostered by a decline of belief in private property and the competitive market; for without the diffused power and initiative associated with these institutions it is difficult to imagine a society in which freedom may be effectively preserved⁵.

Hegemoniaren eratze prozesuaren hasieran, logika ekonomikoaren elementurik esanguratsuena Washingtoneko kontsensuak inposaturiko irizpideen arakasta izan zen. Bertan zurruntasun fiskala, pribatizazioa eta merkatuen liberalizazioa defendatzen zen. Neurri horiek laurogeiko hamarkadatik aurrera jarri ziren martxan, NDF eta Mundu Bankua eta antzeko erakunde onespenerekin. Horregatik, neoliberalismoa, globalizazioaren estrategia hegemonikoa dela esan dezakegu (Jessop, 2000: 110). Ekonomia internazionalaren instituzio nagusiak globalizazioa bultzatzen dute eta kapitalismo aurreratuaren ia herrialde guztietan doitze politika neoliberalak esanguratsuenak dira.

5. Testu osoa honako web orrialde honetan aurki daiteke: <http://www.montpelerin.org/montpelerin/mpsGoals.html>.

Logikoki, gobernu anglosaxoiak izan ziren haien politiketan bira neoliberala islatzen zuten lehenak. Aspaldiko Hayek-en Estatu liberal edo Nozick-en Estatu minimoaren teoriak berreskuratu eta efizientzia irizpidearen pean, politika sozialak desagertu arazi edo sistema fiskalaren progresibitatea murriztu nahi izan zuten adibidez.

Neoliberalismoak ikuspuntu liberaletik⁶ egiten den paradigma ekonomiko keynesiarraren kritikatik lortzen du elikagaia. Horren ezaugarri garrantzitsuenen artean, politika ekonomikoaren zentroan inflazio ekonomikoaren aurkako neurriak jartzea, zerga eta gastu publikoaren bitartez birbanaketa erregresiboa egitea eta merkatuaren funtzionamenduan oreka ezarri dezaketen sindikatu eta organizazio sozialak ahultzea daude (ZZ.AA., 1993: 8). Gainera Estatuaren arautzea eta ekonomian zerbitzu publikoaren parte hartzea negatibotzat joko duen aldaketa kulturalaren alde lan egiten du⁷.

Elkar menpetasunean dauden hiru nukleo dira neoliberalismoaren osagaiak (Macridis eta Hulliung, 1998: 42-43, 87). Alde batetik, nukleo moralak dago, gizaki baten 'izaerari' dagozkion eskubide eta balio oinarrizkoak -askatasuna, duintasuna eta bizitza- adierazten duena; beste eremu guztiak ideia horiek praktikan jartzera egon behar dira bideratuta. Nukleo politikoan demokrazia errepresentatiboarekin zerikusia duten eskubideak daude eta azkenik, nukleo ekonomikoan, eskubide ekonomikoak eta jabetza eskubideak daude. Azkeneko horri buruz hitz egiten denean, indibidualismo ekonomikoa ere aipatzen da eta gizabanakoak merkatu ekonomian ekoiztu eta kontsumitu, erosi eta saltzeko, bere jabetzarekin eta lanarekin nahi duena egiteko ahalmenaz dabil. Ardatz nagusiak jabego pribatu eta Estatuaren arautze eta kontrolez libre dagoen merkatu ekonomia dira. Ideologia neoliberalaren arabera, biztanleriaren beharrak asetzeko nahikoa bada ongi funtzionatzen duen merkatua, ez lirateke bere askatasunean oztoporik jarri behar. Merkatua gertakari guztien zentroan legoke, eta horren kontra ezin da ezer egin (Beck, 1998). Horren aurrean, Estatuak ez da emaila zuzena izango, bermatzailea baizik.

Azken batez, merkatuari ahalik eta askatasunik handiena utzi behar zaio, ez dagoelako interbenitzeko arrazoi moral kolektiborik, hau da, neoliberalentzat ez dira existitzen desiragarriak diren helburu kolektiborik, beraz ez lirateke Estatu politiken helburuak izan beharko (Plant, 2004: 34-35). Gainera, ez dute haien Estatu idealaren legitimazio normatiboa justizia sozialaren bitartez bilatzen, hori egiteko bide bakarra aurrerabide materiala lortzea da (Barry, 2004). Estatuak Leviatan-aren irudiarekin identifikatzen du, liberalismo klasikoan sustraiturik dago eta indibidualismo erradikal batekin du konpromisoa (Heywood, 1997: 90-91). Horregatik Estatuak, askatasun indibiduala eta segurtasun ekonomikoari mehatza egiten dion parasitoa da eta helburua gizabanakoak ahalik eta askatasun mailarik altuena lortzea izan

6. Korrante ugariak egiten du lan Estatu keynesiarraren errebisioan, monetaristez gain, hala nola eskola austriarra, aukeraketa publikoaren teoriariek eta eskaintzaren ekonomia defendatzen zutenek.

7. Proiektu horrek ekonomia keynesiarra eta ekonomia sozialistaren eredu guztiak gaitzetsiak izatea eta XIX. mendean nagusi ziren ekonomia politikoaren gai nagusietara bueltatzea desiratzen du, baita ekonomia neoklasikoak mikroekonomian zuen interesa ere (Gamble, 1986).

beharko litzateke. Eredugarri azaltzen dizkiguten irizpide neoliberalak, ordena kapitalistaren edozein aldaketa gutxietsi egiten ditu, batez ere justiziaren izenean egin nahi badira. Gizarteek justizia edo berdintasunaren alde egiteak atzera pausu bat dela defendatzen du. Zenbat eta berdintasun gehiago, gero eta askatasun gutxiago. Zenbait gizarte taldeen gabeziei aurre egiteko, nahikoa da solidaritateak eskaintzen dituen errekurtsioak erabiltzea (Sotelo, 2010: 287).

Liberalen ikuspegiaren arabera, zuzenbide Estatu askatasun esentzialen zaindaria litzateke eta Estatu interbentzionista, aldiz, agente suntsitzailea. Beharrezkotzat jotzen dute, ondorioz, bigarrenengo hori ezabatzea, lehenengoa lortzeko. Ikuspuntu horrek dionez, eremu sozialean gizabanakoen arteko elkarrekintza mekanikoa besterik ez dago eta politikan, ekonomian bezala hobezin paretianoa existitu daiteke (Rosanvallon, 1995: 104, 109). Jantzi sozialak dituen Estatu batek desiragarriak ez diren ondorioak ditu, jantzi horiek askatasuna mugatzeko besterik ez direlako. Funtzio oinarritzakoagoak dituen Estatu klasikoa ideala da hortaz.

Ongizate Estatu berri batek markatzen dituen ezaugarri berrien artean kontratu sozialaren elaborazioa eta gizabanako eta Estatuaren arteko harremana daude. Herritartasun kontzeptuaren ondorioz gizabanakoak zituen eskubide sozialek, lehiakortasun irizpideak zirela-eta, berriz merkaturatzearen aldeko presioak jasaten dituzte. Dinamika globalizatzailearen efizientzia eta lehiakortasun irizpideen pean bizi beharko gara, beraz. Segurtasuna, ongizate irizpideetatik gero eta urrutiago egongo da, eta batez ere, lan merkatuarekin harremana duten eremuen merkaturatzea bultzatuko da; enpresentzako onuragarrien izango diren langile malguak bilatuko dituzte. Babes sozial mailak mintzeko saiakera horrek, Estatu arduraz deskargatzen du eta unibertsalitate eta berdintasun irizpideetatik aldenduriko ongizate Estatu mantentzen da. Estatuak, azken finean, exigentzia globalizatzaileak bete behar ditu eta ikusmolde hori ia posizio ideologiko guztiek defendatzen dute.

Aurreko deskribapenak Estatu berriz definitzeko klima ideologikoa marrazten digu, tamainan zein funtziotan. Edozein zeinu ideologikoko gobernariak, Estatu handi eta garestien aurka eta txiki eta efiziente baten alde badaude ere (Dehesa, 2000: 115), atzera begiratzen badugu agerian dago errezeta liberalak espero ziren emaitzak lortu ez zituela. Estatuaren interferentzietatik eta ongizate Estatuaren zama astunaz libratu ondoren sortzen zen, hazkunde ekonomikoa guztientzat aukerak eskaini eta gizartearentzat orokorrean aberastasuna era egonkor baten sortuko zuenaren neoliberalen ustea, atzeraldi ekonomikoa apurtu zuen. Optimismo hori geldiarazi eta ezberdintasun gogorrek zeudela onartzera behartu zuen. Gainera errezeta neoliberal horiek sakontzearen alde jokatu zuten eta ongizate zerbitzuei dagokiela, neoliberal erako berriz merkaturatzeak edo pribatizazio puruak arrakasta izatea oso zaila da, dituen funtzioak eta mantentzen duen zilegitasuna dela eta. Frogatutzat ematen da, adibidez, laurogeiko hamarkadan EEBBetan eta Britainia Handian martxan jarritako politika neoliberalak ez zutela espero ziren emaitzak eduki. Pobrezia eta langabezia hazi ziren, eta defizit publikoa handitu zen. Ongizate Estatuak hazkunde ekonomikoa gaitz egiten zionaren ustea martxan jarritako desarautzearekin ez zen demostratu. Are gehiago, oinarritzako zerbitzuak –hezkuntza, osasuna, pentsioak– ez ziren funtsean aldatu, nahiz eta haietan merkatuaren partehartzea aldatu.

Agerikoa da eredu neoliberal puruak ez duela balio erronka berriei aurre egiteko, baina balio izan du kapitalismoaren erasoengatik gizartea babesteko asko kostatu den ehunduriko berokia desegiteko; ondorio gisa desarautzea, pribatizazioa, eskastasuna eta enpleguan mugikortasuna ekarri ditu. Estatu aktiboek berrikuntzaren promozioaren bitartez, enplegagarritasunarekin eta behartsuenei bideraturiko politika sozial efizienteekin konpentsatu nahi izan dute (Vallespín, 2003: 415). Gaur egun nagusi den sen onak ez du ukatzen politika sozialen beharra, beharrezkotzat jotzen dute baina babesgabeko sektoreei bideratuak badaude bakarrik defenditzen dute.

Ongizate Estatuaren berriz antolatzearen beharrezkoa izan dela agerian da. Paradoxikoki, pixkanaka solidotzen joan den tendentzia neoliberalerako Estatuaren ezauzgarrien zerrendatzeaz ez dira autore gehiegik arduratu. Gutxiengo horren barruan, Bob Jessop teorilaria dugu (2000, 2002). Berak dioenez, post-fordismoak ongizate Estatuan gertatzen ari diren aldaketei erantzuna eman behar die estatuaren zilegitasuna urratu gabe. Lanaren berrantolaketa, metatze erregimenak eta arautze erak, fordismo atlantikoaren joeren krisiei oinarritzko erantzuna eta kapitalismoaren oinarritzko kontraesan berrien sorrera planteatzen da. Are gehiago, neoliberalismoa berriz etortzeak, Estatu proiektu eta gobernantza ekonomikoaren arloan estatismoa ordezkatzen du. Arazo ekonomiko eta sozial berriek eta mugimendu sozial berriak etortzeak arautze formei meatsu egiten diete eta hori dela eta, arazo zahar eta berriei aurre egiteko forma berriak sortu dira.

Jessop-en ustez, sortzen den Estatu schumpeteriar berri horrek Estatu kapitalistaren berorientazio estrategiko funtsezkoa eta egitura aldaketa dakar. Kontsensus berri baten produktu da eta bertan, garrantzi zentrala dute globalizazioari buruzko metanarratiba geoekonomiko berriak eta zenbait lurralde eskaletan egituren lehiakortasunari lehentasuna emateko presioek. Metanarratiba hori beste zenbait narratibekin lotzen dira, komeni diren zenbait ideia sendotzeko nahian. Aipaturiko ideia horiek zailtasun ekonomikoari buruzko diagnosi eta konponbideei buruzkoak dira. Estatu-nazioen mugak zulatuak eta zaharkituak daude eta ekonomia nazional guztiak lehiakortasun globala kontuan hartu behar dute eta produktiboa ez den gastu publikoa mugatu, baita beherazko doitze bat bultzatu ere.

Estatua aktiboki inplikatu behar da metatze estrategia berriak garatzen, globalizazioaren diskurtsoetan oinarrituriko proiektu hegemonikoa eta egituren lehiakortasunerako eskaintzan lan eginez. Estatu mota horren politika ekonomikoak betiereko berrikuntzan eta jakintzan oinarritzen dira. Kapital mugikorraren apetak asetzeko aurrekontu zuhurretan konfiantza dute. Estatu mota hori ongizate Estatu keynesiarraren apurketa argia da, enplegu osoa agenda politikoa badago ere, ez delako Estatuaren interbentzioaren helburu lehenetarikoa; nazioarteko lehiakortasuna garrantzitsuagoa da. Dena den, politika ekonomikoaren lehentasunak helburuak ezin dira Estatu nazionalaren bitartez lortu. Kontsensus berriaren ideiekin jarraituz, aberastasuna sortzeari lehentasuna eman behar zaio, ongizatearen oinarritzko baldintza baita.

Gobernuaren zentraltasunetik gobernantza eredu deszentralizatuagoetara pasatzen da, sistema politiko guztian funtzioak berriz eratuz. Ez da hain hierarki-

koa izango. Estatuko aparatuei lehentasuna emateari uzten diote eta ekonomia eta harreman sozialak gidatzeko organizazio ofizial, paraestatal eta gobernu kanpokoaren partehartze era berrien beharra agerian uzten da. Halaber, merkatuaren akatsak konpentsatzeko Estatu kanpoko mekanismoei jartzen diote arreta gehiago, baita Estatuaren aktibitateen sare publiko-pribatuei ere. 'Workfare' erakoa dela esaten da, politika sozialak politika ekonomikoen pean jartzen direlako. Lan-merkatuaren malgutasuna langile malguekin lortzen da, politika sozialen bitartez, beti ekonomia globalizatu bati doitzeko presiopean. 'Workfarea' gastu soziala gutxituko du, potentzialki lan merkatuaren kide aktiboak ez diren horietan, baita gastua eskari populistak eta ingeniariak sozialekoak badira ere. Horregatik Estatuak berrikuntza, eza-gutzaren lehentasuna, ekonomia malgua, enpresakoaren eta autonomoaren eredugarri diren pertsonak nahi ditu eta hezkuntzak berebiziko garrantzia edukiko du. Negozioen onurarako lan egingo duten ongizate zerbitzuen alde, eta beharrian indibidual soilen kontra egongo da.

Baina ongizate Estatu keynesiar eredu ezberdinak zeuden bezala, Estatu eredu berriaren eredu anitzak ere badaude. Ezin da eredu pururik aurkitu, Estatu europar bakoitzak estrategia propioa jarraitzen duelako. Oinordekotza instituzionalak eta estrategia bereziak bilatzen dituzten koiuntura aldakorrek daude, indar politikoen arabera aldatzen direnak. Proiektu global neoliberalaren efektuak edonon suma daitezke, bere kapital eta dominazio ekonomikoaren proiektuaren onuradun diren eremuak hobetsi eta bultzatzeko gai izan delako ia mundu osoan.

2.2. Gobernantza eredu berria

Aurrerago esan bezala, hirurogei eta hamarrek hamarkadan herrialde eta botere ekonomikoek kontsensuzko estrategia bat bultzatu zuten, demokrazia liberal eta inflazio baxura bideratutako politika makroekonomikoak, aurrekontu orekatuak, muga komertzialen ezabatzea eta dibisen kontrolak, kapitalarentzako askatasun osoa, lan-merkatuen arautze minimoa, pribatizazioak eta ongizate Estatu dinamiko eta aldakorren bila (Held, 2000b: 98). Gainera, kontuan eduki behar da botere politikoa arlo nazional, eskualdetan eta nazioarteko arloan dauden zenbait entitate eta indarren artean konpartitu eta hitzartu behar dela (Held, 2000a: 6); erabakien askatasuna, beraz, murriztu da.

Estatu tradizionalari eraso egiten dioten gertakari horiez aparte, irizpide neoliberalak, Estatuaren eremu politiko, ekonomiko eta soziala ito eta gizarte zibilari bere ahalmenak erakusten uzten ez diola defendatzen du (Barry, 2004). Horren ondorioz, gizarte zibilaren zeregina indartzen duten gobernantza-ikuspuntu berriak azaltzen dira eta horien arabera, gizarte zibil berritua ongizate Estatuaren ordeko izan daiteke zenbait eginkizunetan. Hemendik aurrera, erantzukizuna biltzen eta goitik ordena sortzen joan den Estatu defentsazko posizio batera pasa da eta jadanik ez du gizartea antolatzen, defendatu egin behar baitu (Vallespín, 2000).

Gobernantza eredu berriak gaur egun merkatuaren gain interferentzia publikorik gabe gobernatu daitekeen inongo gizarterik ez dagoela kontuan izan behar du,

eza kanpokotasun negatiboen kontrola, konpetentziaren arautzea, baita zenbait irizpide makronomikoetara edo justizia birbanatzailearen eskakizunei atxikitzen ez dena. Aldiz, ezin diote ekimen pribatuari muzin egin edo gizartea eta ekonomia dinamizatzeko duen ahalmena bazter utzi. Estatuak, merkatua, hirugarren sektorea eta haien arteko elkarrekintza berrituak gobernantza berriaren oinarriak sortzen dituzte. Zuzendaritza hierarkikoaren krisi horrek gobernuen ekintzen ikuspuntu tradizionala apurtzen du (Vallespín, 2003). Globalizazioaren ondorioz, Estatuaren ekintzaren arrakastarako Estatu-gizartearen arteko 'des-hierarkizazioa' beharrezkoa da, eta Estatuak eduki izan ohi duen koordinatzaile rola galdu egiten du. Estatu malguago bat eraikiko da, non zuzendaritza politikoa autoarautze sozialarekin elkarrekintzan dagoen. Azken finean, Estatu, merkatu eta gizarte zibilaren harremanaren beharrezko aldaketa horren gidari gizarte zibila izan beharko luke. Gizarte industrialetan ongizatearen egikaritzea Estatu, merkatu eta beste instituzio batzuen artean egin beharko litzateke. Testuinguru honetan 'welfare mix' izeneko ereduak aukera berriak sortzen dituzte. Bertan, politika sozial publikoak, Estatuaz kanpoko mekanismoekin osatzen dira, hala nola merkatua, gizarte zibileko boluntarioen asoziazioak eta familia.

Aurreko ideia horiek, neoliberalismoari jarraiki, gizarte zibilaren autoerregulazio ahalmenean sinestu egiten dute, autonomiaren, erantzukizunaren, auto antolaketa ahalmenaren eta laguntzaren tokia delako. Gizakien borroka lehiakorra garapen sozialaren zati naturala da eta Estatuaren partaidetza herritarren askatasunarentzat traba bat da, ez-naturala eta ez-desiragarria. Aldiz, merkatuaren eta bere konpetentzia mekanismoak berriz ezartzearekin ahal izango dute soilik efizientzia eta askatasuna ezarri (Funderbruck eta Thobaben, 1994: 138).

Neoliberalismoa edo globalismoa, alderdi eta erakunde guztien barnean sartu den birus mentala dela esan daiteke (Beck, 1998: 169), eta bere dogma ez da soilik ekonomikoki jokatu behar dela, dena ekonomiaren nagusigoaren menpe jarri behar dela baizik. Logika horren barruan, aukera politiko guztiak bide-zidor ezberdinetatik jomuga berdinerara heldu izana heldutasunaren adierazle hartzen da, ezinbestekotasunaren isla. Beraz, boterearen antolaketa berria ere doitu egin behar izan du. Herritarrek zenbait ardurei aurre egin behar dieten testuinguruan lanen banaketa honakoa izan daiteke: Estatuak gizabanakoari mundu globalizatu batean defenditzeko tresnak eman behar dizkio, ongizate Estatuak ezingo ditu lehen defenditzen zituen funtzioak bete, 'aukera berdintasun' bat sortu behar da sistematik funtzionatu dezan eta errealista den justizia sozial baten bitartez legitimitatea lortzeko; bestalde, gizabanako arduratsuak ezingo ditu bere eskubideak mantendu eginbeharrak betetzen ez baditu.

3. Hegemonia sendotzea

Orokorrean globalizazioak menpetasun era berriak ezarri ditu eta neoliberalismoaren eragina oso sakona izan da. Hegemoniak orokorrean harreman sozialen eguneroko ulermenaren eratzeko botereei ere egiten die, baina boterearen harreman zurituak baimentzen eta erreproduzitzen dituzten bideei ere (Butler, 2000: 19-29). Gainera, hegemoniak ez du kontsensua eraikitzeari buruz hitz egiten, adostasunari buruz baizik; kontrol eta zuzendaritza egitura onartzean datza. Ez da beharrezkoa biztanleria mundua modu berean ulertzea; boterea, aberastasuna, askatasuna eta abarrek banaketak onartzea nahi du hegemoniak, existitzen diren liderrak egokienak direla sinestea. Ez du borroka ideologikorik behar, hegemonia gizartearen bizitzan zabalago hedatzen baita, eremu kultural, sozial eta ekonomikoan, alegia (Grossberg, 2004).

Estatuari dagokionean, eraso neoliberal-konserbadoreak Estatu liberalera bueltatzeko ahaleginean, XIX. eta XX. mendeetako esperientzia historiko eta eredu politikoaren irudi okerra utzi digu (Martínez de Pisón, 2001). Kontrako ikuspuntuak balira aurkeztzen dituzte, baina benetan Estatu keynesiarra eta Estatu liberala jarraiki historiko batean pausu ezberdinak besterik ez dira. Estatu sozialak, Estatu liberalaren akatsen kritika eta berrikuspena zuen helburu. Gehiegizko individualismoa errefusatu eta izaera soziala zuten planteamenduak egin zituzten. Estatu soziala, Estatu liberalaren funtzioen transformazioaren ondorio da, interbentzionismo babeslea sistematikoki zabaltzeko bidea, nolabait Estatuaren helburuak eraldatzen zituena. Estatu liberal klasikotik ongizate Estatura pasatzean aldaketarik nabariena Estatu minimoa atzean uztea izan zen.

Baina ikuspuntu neoliberalak, batez ere, maila handiko ingeniartza soziala da (Gray, 2000: 32), eta gaur eguneko inolako programa erreformatarik ez du arrakastarako aukerarik, hark azeleratutako edo bultzatutako politikek ezarritako aldaketarik asko atzera bueltarik ez dutela onartzen ez badu. Merkatu libreko politiken aurkako neurriak ez dira efektiboak izango politika haiek martxan jarritako transformazioek sortutako onurak aprobetxatzen ez badituzte.

Neoliberalismoak aurkeztzen zituen ikuspuntu teoriko horiek, globalizazioak bertute eta behar bihurtzen ditu (Mishra, 1999: 46). Beste ideologia batzuen ideiak xurgatu eta egokitzen ditu eta nagusitasuna irabazi du. Aurkari guztiak horren arabera berriz definitu egin beharko dira. Zaila da ideia horien kontra joatea, sen onaren kontzeptuaren gainean eraikia daudelako. Bere programa 'mundu erreala' baten definizio objektibotik dator (Steger, 2005: 11,14). Baumanentzat, alternatiba bat ekarri zezakeen eredu kontrajarri baten gabezia kapitalismo arrakastatsuen benerako ahulezia da. Erresistentzia jartzen dion besterik ez dago. Bizimodu alternatiboa duen kontrako batek bere burua zuzendu eta mugatzera obligatuko lioke kapitalismoari. Ez du aurkitzen kasino kapitalismoaren aurkaririk, beraz kapitalismoak arrakastak lortzen ditu etengabe (Bauman, 2009).

Are gehiago, neoliberalismoak iraultza kontserbatzailea dakar, lehenaldia berrezarri nahi duena baina bere burua progresistatzat aurkeztzen duena, erregresioa aurrerabiderako aukera gisa aurkeztuz. Estrategia horrek arrakasta du, horren

aurka daudenak atzerakoiak diruditelako (Grass eta Bourdieu, 2002: 63). Neoliberalismoaren efektu horiek utopiak bere rola galdu duen unean ematen dira. Bauman-ek (2001), utopiaren eta ongiaren ereduaren pribatizazioa ematen den epe batez hitz egiten du, non bizitza onaren eredu ugari sortzen diren, eta gizarte onaren ereduetatik aldentzen den.

Neoliberalismoak bere burua berrasmatzeko ahalmena du. Harvey-ren (2009) iritziz, argudio neoliberalaren utopismo teorikoak, bere helburua lortzeko behar zen edozer gauzaren justifikazio eta zilegitasun sistema legez erabili dute. Datuak eskuan ditugula esan daiteke irizpide neoliberalak elitearen boterearen aurkakoak direnean, alde batera utzi edo guztiz desitxuratzan dituztela, ia ezagutezin bihurtzen dituzten arte. Beraz, tentsioa dago ideia neoliberala eta neoliberalizazioaren praktika errealean artean.

Laburbilduz, guda ostean bizitza politikoa egituratzen zuten ideologiak zaharkiturik daude eta aldaketa hori kontsensu ekonomikoaren sorrerarengatik sakondu da. Gobernuek eta oposizioek eraman behar duten jantzi ekonomikoa dela eta, igetiketa sinkronizatuan aritu behar dute (Friedman, 2000), eta hortaz, ez dago ezker eta eskuinaren arteko diferentziarik.

Estatuek antzeko ezaugarriak dituzte eta guztietan ikus dezakegu ongizatea- ren inguruko eremuaren estutzea. Philip G. Cerny-ren ustez (1996, 1999b), ongizate Estatuaren krisia ekonomia nazionalak munduko ekonomiatik isolatzeko ezgaitasunagatik iratzarri da. Hortik aurrera 'lehiakortasun Estatu' bultzatu dute, globalizazioaren ondorio garrantzitsuenetarikoa, alegia. Gizabanako eta taldeak egitura baldintza aldakorrei doitzen dira, horrela prozesu eta aldaketen emaitzei forma emanez. Lehiakortasun Estatu horren eredu ortodoxoena, laurogei eta laurogei eta hamarrek hamarkadetako Estatu neoliberal britainiar eta estatubatuarra da. Estatu mota horrek merkaturatzea hedatu nahi du herrialde batean dauden aktibitate ekonomikoak nazioartekoan eta nazioaz haratago lehiakorragoak egiteko. Gobernuaren gastua murrizteko saiakera eta aktibitate ekonomikoaren desarautzeak dira prozesuaren punturik nabarmenenak. Ondorioz, praktika eta diskurtso berri bat sortu da, 'finantzari ortodoxia txertatua', alde guztietan ekintza politikoaren parametroak baldintzatzen ari dena. Merkatu anitz eta aldakorren erruz politikak lehiakortasunaren pentzudan daude eta erantzun malguak eman behar dituzte. Bere gestioaren ardatzak monetarismo neoliberal eta inflazioaren kontrola izango dira. Finean lehiakortasun Estatuak gehiago lortu behar du errekurtsu gutxiagorekin.

Baina globalizazio eta Estatu mota horren arteko harremanak hiru paradoxa dakartza. Alde batetik, lehiakortasun Estatuaren sorrerak ez dakar Estatuaren gainbehera, interbentzioaren hedapena eta Estatuaren arautzea beharrezkoak direlako lehiakortasuna eta merkaturatzea lortzeko. Bestalde, Estatuaren aktore eta instituzioek globalizazio era berriak bultzatzen dituzte, Estatuaren ekintza errealitate globalei doitzeko asmoz. Eredu horiek epe ertainera bakarrik izango dira posible, beti ere doitze era efiziente bezala sumatzen badira.

Autore berak globalizazio ekonomikoaren eta Estatu/gizartearen arteko tentsioaren areagotzeak, gatazka politikoaren muina eratzen dutela diosku. Ondorioz, hirugarren paradoxa aurkezten da: eremu politiko berri horren garapenagatik Esta-

tuko instituzioen solidaritate komunitarioa gorpuzteko ahalmena zaildu eta bide batez Estatuaren indarra ahitu egiten da. Hiru paradoxa horien konbinazio eta elkarrekin dinamikoak, lehiakortasun Estatuaren sendotze eta hedapena dakar eta honekin batera, globalizazio politiko prozesuaren irmotzea. Bestalde, ongizatean egiten den gastua sistema ekonomikoaren orekatzailea den bitartean justifika daiteke, baita hazkundera dedikaturik dauden merkatu aukeren gehitzea baimentzen duen tresna bada ere. Ziurrenik, herritarrek ongizate Estatu nazionalen ezaugarri ziren zerbitzu publiko eta neurri banatzaileak gabe bizitzen ikasi beharko dute. Gainera, ondasun komunak lortzeko Estatuaren rola asko murriztu da, ondorioz zilegitasun krisien aurrean ahulagoak dira. Estatuak tresna politiko oso garrantzitsuak utzi dituzte alde batera, bere ahalmen eta autonomia politikoa zulatua dago, eta agian berreskura ezina izango da.

Estatuak ezin du jokatu hierarkia desmerkaturatzaile gisa, aktibitate ekonomikoak merkatu kanpoan jarri, gero eta gehiago agente merkaturatzailea da edo are gehiago, berau merkatu aktore bilakatzen da. Oro har, Estatuaren instituzio eta praktikak pixkanaka merkaturatutakoak izaten ari dira. Nazioarteko ekonomiaren lehiakortasun prozesuan, Estatu bere buruaren eraldatzearen aktore bihurtzen da, enpresa asoziazioa bihurtuz. Halaber, merkaturatzea ideologikoki bultzatzen dute. Estatuaren sare ekonomiko konplexu bateko finantzari, bitartekari, abokatu eta enpresaria da.

Estatu eta merkatuaren arteko mugak ezabatu egiten dira, beraien egiturak kordatzten doaz eta bakoitzaren portaerak banatzea gero eta zailagoa da. Horri gehitu behar diogu Estatuak gero eta ahalmen gutxiago duela Estatu estrategiko edo garapeneko izateko, sare gobernu artekoen loturik dagoelako. Ironia post-modernoa dela diosku Cerny-k. Estatuaren globalizazio ekonomikoaren egituren indarren pean zulatua izaten ari da eta era berean, lehiakortasun Estatuaren globalizazio politikoaren motore eta gida mekanismo bihurtzen ari da. Prozesu horrek politikaren testuinguru ekonomiko, sozial eta kulturalari forma eman diezaiokeen berrasmaketa eta zilegitasun era berrien eraikuntza eskatzen du. Azken finean, ondorioztatzen den mundu globalari ere forma emango dio.

Esan dezakegu ikuspuntu liberal-kontserbatzaileari egoera definitzeko botea eman zaiola. Suertatu diren gertakizunak direla medio, ikuspuntu liberala arrazionala dirudi, gertakizunak horrela inposatu dutelako. Claus Offe-k (1990: 139) dioen bezala, garrantzitsuena da errealitatea nola definituko eta nola neurtuko dugun, definizio hori egin dezakeenak edukiko baitu boterea. Tesi erasotzaileak zentro-eskuinean daudenak direla uste da, eta saiakera horretan bere tresna liberal guztiak erabiltzen dituzte. Oinordekotzan jaso duten sistemaren akatsak azpimarratzen dituzte eta horren aurrean zentro-ekerra datu enpirikoekin, hots, demostratu daitezkeen datuekin defendatu daiteke bakarrik. Etorkizuneko gizartearen erakitzeko, ezkerak oso bide zaila dauka ideologikoki oso tresna gutxi gelditzen zaizkielako bere helburu nagusiak aurrera eraman ahal izateko. Vallespín-ek (2000) dio 'posiblea denaren goraiapatea' egiten dela. Hori edozein lekutan posiblea dena justifikatzean datza: norbaitek berdina egin badezake kostu gutxiagorekin, ez dago arrazoirik hemen ez egiteko. Edozein irizpide moral edo/eta justiziakoa atzean

geldi daiteke horrekin, lehiakortasunerako aukeraren bat irabazten bada. Zibilizazio balore tradizionalak ezin dira mantendu sistemaren logikaren kontra badoaz. Horren oinarritzko pausuak jarraituz biziraun egin beharko dugu.

Aldaketaren puntu nagusia ongizate Estatuaren ulermenean ikus daiteke, bira ideologikoa argi eta garbi islatzen duelako. Agian, bira hori globalizazioa demokratizatzeko hitzarmen bat besterik ez da, sistema berrian bizirik irauteko era bakarra. Mishra-rentzat (1996: 327) ongizate Estatuarekiko kontsensuak ezker-eskuinaz haratago doan sintesiaren ondorio dela dio. Horrek aukera ideologiko guztien gerturatzea eragin du. Aurreko egoera horren zurigarri gisa funtzionatzen duen sostengua, kontsumo kapitalismo demokratikoa auto-legitimatzaile bihurtu dela da. Merkatu kapitalismoari alternatiba sinesgarri bat ez dagoenez, globalizazioaren sistemak inposaturiko ezberdintasun eta ziurgabetasuna onartua da, edo ez du bizikidetasunarentzat beharrezko den kohesio soziala apurtzen bederen. Logikoa dirudi aldagaien gertutasuna dela eta, ezker-eskuinaren arteko diferentziak aurkitzea gero eta zailagoa izango dela pentsatzea.

Hala eta guztiz ere, posibleak diren beste eskenatoki batzuk aurkituko ditugu etorkizunean. Kitschelt-entzat (1994) adibidez, ekonomia 'aldagai azpimarragarria' den bitartean, zeinaren arabera alderdiak helburuetan eta politiken oinarritzko metodotan ados dauden eta helburu horiek betetzeko trebeziaren inguruan lehia-tzen diren, gatazka komunitaristak izan daitezke alderdiei gizarteari buruzko aldagai ezberdinak edukitzea ahalbidetzen dietenak.

Ongizate Estatuak ez da merkatu ekonomiaren legitimatzailea, ekonomia kapitalistaren arauak aldatu egin direlako batez ere. Trantsizio prozesuaren ondoren, soziala eta ekonomikoa dena bide ezberdinak jarraituko dituzte eta haien arteko edozein harreman zorrotz aztertuko dute. Onura ekonomikoaren kontra doazen kapital fluxuak zigortuko dira, neurri heterodoxoak –estatalistak, antiglobalizatzaileak...- proskribatuak, programa sozialek gero eta garrantzi gutxiago edukiko dute gastuan eta Estatuak haien politika ekonomikoa finkatzeko autonomia galduko dute.

Diskurtso hegemonikoa aurreko guzti horren parte errudun eta emaitza logikoa dela esan genezake. Guztia egongo da globalizazioarekin harremanetan hementik aurrera, eta elementu horien bilduma zilegitzen duena, Estatu eredu berritua da eta kontsensu sozialdemokrataren barruan zeuden aldagaiei zentzu berria emango die. Bere rola funtsezkoa da, martxan jartzen dituen efektuak eremu zabaletara hedatzen direlako: tradizio ideologikoen ezker-eskuin ardatzean haien burua kokatzeko Estatuaren aldagaia erabili dute eta horrek politikoa denaren garapena baldintzatu du.

Gelditzen den ongizate Estatu erresiduala edo pluralista, ongizatea eskaintzeko mugak onartu behar ditu, etengabe presioak jasaten ari da egiten duena ekonomian eragina izateko, eta irizpide banatzaileak alde batera utzi behar ditu. Horren ondorioz, ongizatearen eskaintzaren mailaketa azaltzen da; hots, Estatuak funtsezko eskaerak ase behar ditu, herriartasun eskubideak, nahiz eta murriztagoak izan. Herri-tarrek beren etorkizunarekiko erantzukizun gehiago edukiko dute, batez ere lan merkatuari dagokiola. Estatuak herriartari berdintasunean aukerak lantzeko tresnak eman behar dizkie.

4. Ondorioak

Ordena globalaren arau formalak neoliberalismoak defendaturiko irizpideei jarraiki finkatu dira eta Estatu guztiak horien arabera doitu behar dira dinamika ekonomikotik kanporatuak izan ez daitezen. Nazioarteko mailan landuriko kontsensuak irizpide neoliberal horiek errealitate ekonomikoa ulertzeko funtsezkoak direla diote. Sarri kausa eta efektua, hots, prozesuaren elementuak, nahastu egiten ditugu. Hori guztia dela eta, urte askotan kontsensu sozialdemokratikoen politiken praktikotasuna gidatu baldin bazuen ere, gaur eguneko kontsensu neoliberal hegemonikoa da eta ikuspuntu alternatibo egingarriak topatzea ia ezinezkoa da.

Kontsensu eta hegemonia kontzeptuen arteko diferentzia nagusia, galtzaile iritien diren tradizio politikoei gelditzen zaien esparrua da. Kontsensu sozialdemokratikaren erregetzan, tradizio kontserbatzaile edo liberalak kosmobisio alternatiboa irudikatzea posiblea zen; gaur egun, ordea, neoliberalismoak atxikia dakarren ekonomia-irizpideak gailurretik jaitea ia ezinezkoa dirudi. Aurrerabideak naturalki ezarritako jarraibideak balira onartu dira.

Idea horri gehitu behar diogu globalizazioak bideratzen dituen prozesuak apolitikotasunaren irudipean agertzea lortzen duela. Inposatu behar diren egitura ekonomikoen muga emaitza dira, diskurtso hegemonikoaren gauzatze beharrezkoa. Keynesianismoak diskurtso sozialdemokratari laguntzen bazion, oraingo diskurtso berriak zentro-eskuinari egiten dio mesede, eta egitura-muga ekonomikoak eta Estatu ereduaren arteko harremana, tradizio ideologiko guztiek naturalki barnertzen dituzte.

Naturaltasun hori, isilpeko lan baten ondorio, ez du gizarte baten mantenu-rako beharrezkoa den kohesio soziala urratu, sorturiko desberdintasun sozialak ongia eta aurrerabide orokorraren izenean ordaindu behar den prezioa diruditelako. Ideia gorenengatik sakrifizioak egitea ohikoa da. Gizarte baten aurrerabidearen maila, lortu zezakeen ongizate maila neurtuz egiaztatu bagenezakeen, sendotu den diskurtso horren pean, sistema bidezkoagoa imajinatzea zailagoa da dudarik gabe, eta agian datozen belaunaldientzat etorkizuna ez da dagoena baino hobeagoa izango.

Krisi ekonomiko berriaren ezta, proiektu hegemonikoaren azpiegitura agerian utzi eta epe luzearako alternatiba diseinatzera lagundu lezake. Baina krisia sistema kapitalistaren barne porrotaren ondorio izan bada ere, ez dirudi hegemonia neoliberalari urratu ere egingo dionik.

Bibliografía

- BARRY, Norman. "The rationale of the minimal state". In: Andrew Gamble eta Tony Wright (ed.). *Restating the state?* Oxford: Blackwell, 2004; 24-37 orr.
- BAUMAN, Zygmunt. *En busca de la política*. Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica, 2001.
- . *Europa. Una aventura inacabada*. Buenos Aires: Losada, 2009.
- BECK, Ulrich. *¿Qué es la globalización? Falacias del globalismo, respuestas a la globalización*. Barcelona: Paidós Estado y Sociedad, 1998.
- BUTLER, Judith. "Reescenificación de lo universal: hegemonía y límites del formalismo". In: Judith Butler, Ernesto Laclau eta Slavoj Žizek, *Contingencia, hegemonía, universalidad. Diálogos contemporáneos en la izquierda*. México: Fondo de Cultura Económica, 2000; 17-48 orr.
- CERNY, Philip G. "What next for the state?". In: Eleonore Kofman eta Gillian Youngs (ed.), *Globalization. Theory and practice*. London: Pinter, 1996; 123-137 orr.
- . "Globalization and the erosion of democracy". *European Journal of Political Research*, 36, 1, 1999; 1-26
- . "Restructuring the political arena: globalization and the paradoxes of the competition state". Randall D. Germain-en (ed.), *Globalization and its critics. Perspectives from political economy*. London: PERC-MacMillan, 2000; 117-138 orr.
- DEHESA, Guillermo de la. *Comprender la globalización*. Madrid: Alianza, 2000.
- ECCLESHALL, Robert. "Liberalismo". In: Robert Eccleshall, Vincent Geoghehan, Richard Jay eta Rick Wilford, (ed.). *Ideologías políticas*. Madrid: Tecnos, 1999; 41-81 orr.
- FRIEDMAN, Thomas L. *The Lexus and the olive tree*. Nueva York: Anchor Books, 2000.
- FUNDERBURK, Charles; THOBABEN, Robert G. *Political Ideologies*. New York: Harper Collins College Publishers, 1994.
- GALLEGO, María Teresa. "Estado social y crisis del estado". In: Rafael del Águila (ed.), *Manual de Ciencia Política*. Madrid: Trotta, 2000; 107-138 orr.
- GAMBLE, Andrew. "The political economy of freedom". In: Ruth Levitas (ed.), *The ideology of the new right*. Cambridge: Polity Press, 1986; 25-54 orr.
- GIRVIN, Brian. *The right in the Twentieth Century. Conservatism and democracy*. Londres: Pinter Publishers, 1994.
- GRASS, Günter; BOURDIEU, Pierre. "La restauración progresista". *New Left Review* (gast.) 14, 2002; 61-74 orr.
- GRAY, John. *Falso amanecer. Los engaños del capitalismo global*. Barcelona: Paidós Estado y Sociedad, 2000.
- GROSSBERG, Lawrence. "Entre consenso y hegemonía: notas sobre la forma hegemónica de la política moderna". *Tábula Rasa* 2, 2004; pp. 49-57.
- HABERMAS, Jürgen, *Problemas de legitimación en el capitalismo tardío*. Buenos Aires: Amorrortu, 1975.
- HARVEY, David. *Breve historia del neoliberalismo*. Madrid: Akal, 2009.
- HELD, David. *Political theory and the modern state*. Cambridge: Polity Press, 1989.
- . "¿Hay que regular la globalización? La reinención de la política". *Claves de Razón Práctica* 99, 2000a; 4-11 orr.
- . "¿Entiende el nuevo laborismo la globalización?". *Leviatán* 79, 2000b; 95-105 orr.
- . *Un pacto global. La alternativa socialdemócrata al consenso de Washington*. Madrid: Taurus Pensamiento, 2005.
- HEYWOOD, Andrew. *Politics*. Londres: Macmillan, 1997.
- INGLEHART, Ronald. *Modernización y posmodernización. El cambio cultural, económico y político en 43 sociedades*. Madrid: CIS, 1998.
- JESSOP, Bob. "Reflexiones sobre la (i)lógica de la globalización". *Zona Abierta* 92/93, 2000; 95-125 orr.

- . *The future of the capitalist state*. Cambridge: Polity, 2002.
- KITSCHKE, Herbert. *The transformation of European social democracy*. Cambridge: Cambridge University Press, 1994.
- MACRIDIS, Roy C.; HULLIUNG, Mark. *Las ideologías políticas contemporáneas*. Madrid: Alianza, 1998.
- MARTÍNEZ DE PISÓN, José. "El final del estado social: hacia qué alternativa". *Sistema* 160. 2001; 75-92 orr.
- MERKEL, Wolfgang. *¿Final de la socialdemocracia? Recursos de poder y política de gobierno de los partidos socialdemócratas en Europa Occidental*. Valencia: Alfons El Magnànim, 1995.
- MISHRA, Ramesh. "The welfare of nations". In: Robert Boyer y Daniel Drache (ed.), *States against markets. The limits of globalization*. Londres: Routledge, 1996; 316-333 orr.
- . *Globalization and the welfare state*. Cheltenham: Edward Elgar, 1999.
- MOUFFE, Chantal. *La paradoja democrática*. Barcelona: Gedisa, 2003.
- MÜLLER, Wolfgang. "Political traditions and the role of the state". *West European Politics* 17, 3, 1994; 32-51 orr.
- OFFE, Claus. *Contradicciones en el estado de bienestar*. Madrid: Alianza Universidad, 1990.
- PARAMIO, Ludolfo. "Gatos de distintos colores". *Revista Española de Ciencia Política* 3, 2000; 198-205 orr.
- PLANT, Raymond. "Neo-liberalism and the theory of the state: from Wohlfahrtsstaat to Rechtsstaat". In: Andrew Gamble eta Tony Wright (ed.), *Restating the state?*. Oxford: Blackwell, 2004; 24-37 orr.
- ROSANVALLON, Pierre. *La crisis del Estado providencia*. Madrid: Cívitas, 1995.
- SOTELO, Ignacio. *El Estado social. Antecedentes, origen, desarrollo y declive*. Madrid: Trotta, 2010.
- STEGEER, Manfred. "Ideologies of globalization". *Journal of Political Ideologies* 10, 1, 2005; 11-30 orr.
- TEZANOS, José Félix. Las políticas de interés general. *Temas para el debate*, 184, 2010; 13-26 orr.
- VALLÉS, Josep M. "¿Cuánto mercado puede tolerar la democracia?". *El País*, 2010; 13 or. 2010/06/11
- VALLESPÍN, Fernando. *El futuro de la política*. Madrid: Taurus Pensamiento, 2000.
- . "Globalización y política: la crisis del estado". In: Aurelio Arteta, Elena García Guitián eta Ramón Máiz (ed.), *Teoría política: poder, moral, democracia*. Madrid: Alianza, 2003; 402-423 orr.
- ZZ.EE. *La larga noche neoliberal*. Madrid: Icaria, 1993.